

**ERANTZUNKIZUN SOZIAL
KORPORATIBOAREN ERREGELAMENDUA
ETA GOBERNANTZA ONAREN KODEAREN
PROIEKTUA
ATHLETIC CLUB**





HITZAURREA

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- XEDEA
2. ARTIKULUA.- APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA
3. ARTIKULUA.- PRINTZIPIO OROKORRAK

II. TITULUA.- ERANTZUNKIZUN SOZIALA

4. ARTIKULUA.- KONTZEPTUA
5. ARTIKULUA.- JARDUERA-EREMUAK
6. ARTIKULUA.- HELBURUAK
7. ARTIKULUA.- ERANTZUNKIZUN SOZIALEKO PROGRAMA
8. ARTIKULUA.- ERANTZUNKIZUN SOZIALEKO BATZORDEA
9. ARTIKULUA.- BATZORDEAREN EGINKIZUNAK
10. ARTIKULUA.- KLUBAREN HARREMAN-ESPARRUA FUNDAZIOAREKIN

III. TITULUA.- GOBERNANTZA ONAREN KODEA

11. ARTIKULUA.- ESPARRU OROKORRA
12. ARTIKULUA.- KODE ETIKOA
13. ARTIKULUA.- ARAUDIA BETETZEKO PROGRAMA
14. ARTIKULUA.- BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMA
15. ARTIKULUA.- KONTROL-ORGANOAK

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

KLAUSULA INDARGABETZAILE OROKORRA

AZKEN XEDAPENA

INDARREAN SARTZEA



HITZAURREA

ZERBITZU-ORRIA

ATHLETIC CLUB ehun urtetik gorako kluba da, eta bere jabetza bazkideei dagokie. ATHLETIC CLUBek, jakina denez, nortasun propioa eta berezia du futbolaren elitean, "kirol-filosofia" bakarrean isladatzen dena, lurraldearekin eta komunitatearekin duen lotura banaezinaren ondorioz. Hori dela eta, sorreratik bertatik lotura estua izan du sortu zen komunitatearekin. Esparru sozial horretan, errotze-sentimendu handia eta kide izateko lotura nabarmena sortzen dira, eta horrek bereziki arduratsua izatera behartzen du parte hartzen duen komunitate horrekiko.

Kirol-erakunde bezala ehun eta hogeita bost urte baino gehiago igaro diren honetan, ATHLETIC CLUBek modu fidagarrian egiaztatu du profesionaltasun eta bikaintasun ibilbidea, eta horri esker, kudeaketa arduratsu eta zuhurraren izen ona sendotu du. Iraganean izaera asoziatiboa mantentzea ahalbidetu zuten gertaera horiek. Hori guztia lortu zen, besteak beste, Klubak betidanik ezaugarri izan duen betetzearen eta gobernu onaren kulturaren oinarrituta artikulatutako kudeaketa-lan bikainari esker. Horrek, berez, erakundearen epe luzerako iraunkortasuna bermatu du, eta bere gobernantza-eredua berretsi du.

Gizartean izan duen eraginari dagokionez, ATHLETIC CLUB eredugarria izan da alderdi askotan. Bere zaleak eta estadioa mirestuak izan dia bere portaera onagatik, gizabideagatik eta errespetuagatik eta adierazitako forma onengatik; era berean, Lezama ere miresgarria izan da prestakuntzako futbol-akademiaren dimentsioari dagokionez, aitzindaria baita metodologiari eta prestakuntzari dagokionez, baita gizartean barneratzeko mekanismo gisa ere, Euskal Herri osoan banatutako klub hitzartuen sare zabala duelarik. Klubaren garrantzi eta inpaktu sozial hori agerian uzten duten beste alderdi batzuk Estatu osoan eta mundu osoan sortutako ehunka Peñaren loturak dira, baita ATHLETIC CLUB Fundazioak egindako lana ere. Lan hori, hamarkadak igaro ondoren, erreferente garrantzitsu bihurtu da, gizarte- eta kultura-arloan dituen proiektu nabarmenengatik. Gaur egun, ATHLETIC CLUBen orientazio soziala Fundazioarena berarena baino harago doa, eta lehen mailan dago bere eredu betearazlean eta gobernantza korporatiboan.

Arrazoi honengatik guztiengatik, argi dago ATHLETIC CLUB gizarte-kohesiorako faktore garrantzitsua dela, bai eta eragile inklusiboa ere; izan ere, futbolearen parte hartzen duten pertsona guztiak barne hartzen ditu, bai eta, kirol hori erreferente ez izanik ere, kirol-izaera bakarretik eta sortzen dituen balio moraletatik ulertzeko moduagatik bertara hurbiltzen direnak ere.





Gainera, nabarmendu behar da ATHLETIC CLUB kudeaketaren zuzentasunaren eta gardentasunaren adibide bat ere badela, eguneroko administrazioan jardunbide egokiak ahalik eta gehien bermatzera bideratutako prozesuez hornituta baitago, eta kudeaketako kalitate-prozedurak, Arrisku Penalak Prebenitzeko Sistema, Haurrak Babesteko Aterpe Programa (Estatuan indarrean dagoen legediaren aitzindaria) eta arau-urratzeen eta salatzailak babesteko Barne Sistema egiaztatu baititu. Araudia betetzeko programa hori guztia etengabe hobetzen ari den sistema da, eta Erregelamendu honek sendotu egiten du.

Kirola sustatzeak, kirola egiten duenaren osasunean eragin positiboa izateaz gain, gizartea egituratzen duen elementua ere bada, hainbat kolektiboren integrazioan laguntzen du eta gazteentzako inspirazio-elementua da. Horrek guztiak gure adierazpen eta jarduera guztietan erantzukizun berezia izatera behartzen gaitu.

TESTUINGURU BERRIA ETA LEGEZKOTASUNA

Egungo gizartea etengabe bilakatzen ari da, eta ezinbestekoa da arreta berezia jartzea gure inguruko interes-talde bakoitzaren gizarte-eskakizun berriei, bai eta Klubak sortzen duen inpaktuari ere: ingurumenekoa, ekonomikoa eta soziala, inpaktu emozionala alde batera utzi gabe.

Bestalde, legeriak eskakizun berriak jartzeko joera du gizarte-erantzukizunarekin eta gobernantza onarekin lotutako eremuetan, hala nola finantza-informazioa eta gizarte- eta ingurumen-informazioa modu leialean biltzeko eta transmititzeko gero eta eskakizun handiagoa, gardentasuna funtsezko elementua izanik interes-taldeek erakundearen duten konfiantza sustatzeko. Beste lege-eskakizun batzuk eraldaketa digitalaren, ingurumen-urgentziaren, giza eskubideen errespetuaren edo ustelkeriaren aurkako borrokaren ondorio dira.

Honen harira, ATHLETIC CLUBen Estatutu Sozialek hainbat artikulutan, baina bereziki 3. artikuluan eta zenbait Xedapen Gehigarritan, Erantzukizun Sozial Korporatiboari eta Gobernu Onari buruzko irizpideak eta betebeharrak ezartzen dituzte, baina baita euskararen normalizazioari, berdintasunari, aniztasunari, irisgarritasunari eta haurren babesari buruzkoak ere.

Horregatik guztiagatik, Erregelamendu honek legezketasunaren betetze hutsa gairatu nahi du, modu proaktibo eta boluntarioan sar ditzan bai gobernuan eta kudeaketan, bai estrategian, politiketan eta prozeduretan, bai eta gure interes-taldeekiko harreman eta elkarrizketa gardenetatik sortzen diren gizarte, lan, ingurumen eta giza eskubideen errespetuari buruzko kezketan ere, betiere gure ekintzen ondorioak eta eraginak kontuan hartuta.





Azken batean, Erregelamendua oinarri etikoa da, gutxienekoen oinarria, eta hortik abiatuko da, nazioarteko panoraman hartzen diren jardunbide berriak txertatu ahal izateko eta abangoardia iraunkorra izateko, etengabe ebaluatzen eta hobetzen ari den bilakaera-sistema artikulatuz.

BI ERAKUNDE: HELBURU BAT

ATHLETIC CLUB 1898an eratutako kirol-elkartea da, eta ATHLETIC CLUB Fundazioa 2002an eratu zen, bere erabakiz. Beraz, nortasun juridiko propioa eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten bi erakunde dira.

Erakunde juridiko autonomoak izanik, helburuak eta gizartearen aurrean jarduteko moduak partekatzen dituzte, baita lankidetzan eta modu koordinatuan jarduten duten printzipio berberetan oinarritutako kudeaketa-ereduak ere. Honegatik, Erregelamendu honen edukia Klubeko Konpromisarioen Batzarrari eta Fundazioko gobernu-organoei aurkeztuko zaie, azken kasu honetan, erakunde horrek edukia bere gain har dezan eta berdin aplika dezan.

NAZIOARTEKO ERREFERENTEA

Azkenik, ATHLETIC CLUBek, ehun urtetik gorako ibilbidean oinarritutako kirol- eta gizarte-posizionamendu bakarraren berezitasunetik abiatuta, egungo futbolaren ikuskera desberdin baten ordezkari izan nahi du nazioartean, tokiko sustraiekin, erkidego-euskarri utziezinarekin eta nazioarteko mailarik gorenean lehiatzeko asmoarekin. Horretarako, ezinbestekoa da benetakotasun frogagarria egiaztatzea kirolaren, gizartearen eta kudeaketaren arlo guztietan.

I. TITULUA- XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- XEDEA

Erregelamendu honen helburua da ATHLETIC CLUBek, erakunde gisa, eta erakundea osatzen duten pertsona guztiek, gizartearekin eta ingurumenarekin modu arduratsuan jarduteko printzipioak eta jokabide-jarraibideak zehaztea, eta, aldi berean, gobernu- eta kudeaketa-esparrua ezartzea, kultura korporatibo iraunkorrean oinarrituta.

Horretarako, eta Estatutuak garatuz, Erregelamendu honek Erantzukizun Sozialaren kontzeptua zehazten du, eta transakzio ekonomiko eta legal guztien kudeaketari eta kontrolari eragiten dieten Gobernu Onaren praktikak formulatzen ditu, baita ATHLETIC CLUBen izenean jarduten duten pertsonen portaera etikoari ere.





2. ARTIKULUA.- APLIKAZIO-EREMU SUBJETIBOA

Klubaren Estamentu guztiei, haren organoei eta hura osatzen duten erakunde eta pertsona guztiei aplikatzen zaie, eta guztiak errespetatu eta bete behar dute nahitaez, eta Erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera jokatu behar dute. Aurrerantzean, eta guztiak aipatzeko, ATHLETIC CLUB.

Erregelamendu honen edukia bere egiteko gonbita egingo zaio ATHLETIC CLUB Fundazioari.

Gainera, ATHLETIC CLUB saiatuko da Erregelamendu honen edukia zabaltzen, hala dagokionean, ATHLETIC CLUBekin harremana duten pertsona eta erakunde guztietara.

3. ARTIKULUA.- PRINTZIPIO OROKORRAK

a) Gizarte-erantzukizunarekiko konpromisoa

ATHLETIC CLUBek bere jarduera garatzen duen ingurunean eragin positiboa izateko konpromisoa du. Horretarako, estrategia eta ekintza zehatzak hartuko ditu, herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko, eta arreta berezia jarriko du gizarte osoan zeharka eragiten duten faktore sozialetan, ekonomikoetan eta ingurumenekoetan.

b) Gobernantza Onarekiko konpromisoa

ATHLETIC CLUBek konpromisoa du Gobernu Onaren jardunbide onenekin, Klubaren kudeaketa etiko, garden, arduratsu eta eraginkorra bermatuko duten printzipioak eta jardunbideak bere eginez eta parte-hartze prozesuak sustatuz gobernantza onerako tresna gisa.

II. TITULUA- ERANTZUKIZUN SOZIALA

4. ARTIKULUA.- KONTZEPTUA

Erantzukizun sozial korporatiboaren barruan sartzen da ATHLETIC CLUBek jasangarritasunari, ingurunearekiko eta ingurumenarekiko errespetuari, gizarte-ekintzari, inklusioari, aniztasunaren aitortzeari, kalitateari eta berrikuntzari, kulturari eta aurrekoen antzeko eremuei egiten dien ekarpena. Horiek guztiak Erregelamendu honetan zehaztutako printzipio, balio eta jardunbideetan gauzatzen dira, eta Klubeko Zuzendaritza-Batzordeak une bakoitzean onartzen duen Erantzukizun Sozialeko Programaren bidez garatuko dira.





5. ARTIKULUA.- JARDUERA-EREMUAK

ATHLETIC CLUBen programa soziala, zuzenean edo ATHLETIC CLUB Fundazioaren bidez bultzatua, jarduera-ardatz hauen bidez egituratzen da:

1. Komunitatea. ATHLETIC CLUBek gizartea leku hobea izateko duen ahalmen izugarria aktibatzea, komunitatearen ongizateari lagunduz, bere lurraldean eta munduan dituen sustrai sendoen jakitun.

2. Inklusioa. Futbolaren eta ATHLETIC CLUB markaren boterea bideratzea, lurraldeko erakunde eta entitate sozialekin lankidetzan, inor ez dadin komunitate kontzeptutik kanpo utzi, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsona eta kolektiboak lagunduz, giza eskubideak errespetatzen lagunduz eta pertsonen duintasuna indartzen lagunduz.

3. Kultura. Futbolaren inguruko kultura-jarduerak sustatzea, gure komunitateko pertsonen garapen intelektuala, pentsamendu kritikoa eta hezkuntza sustatzeko. Gainera, futbol profesionalizatuaren ikuskera hedakor eta bereizgarrian oinarrituta, ATHLETIC CLUBek modu aktiboan eta estuan parte hartzen du, familiekin eta erakundeekin batera, gazteen hezkuntza-prozesuan.

Horietan guztietan, kirola egitea, oro har, eta futbola, bereziki, deskribatutako jarduera-ardatzei buruzko helburuak lortzen lagunduko duen zeharkako ardatza izango da.

6. ARTIKULUA.- HELBURUAK

ATHLETIC CLUBek Gizarte Erantzukizunarekiko konpromisoa islatzen du inpaktu-arlo bakoitzeko helburu jakin batzuetan, hala nola:

- a) Soziala: futbola gizartearen ongizate orokorra bultzatzeko tresna gisa erabiltzea, talde ahulenetan eta bazterkeria-arriskuan daudenetan arreta berezia jarritz, aniztasuna aitortuz, inklusioa sustatuz eta kultura faktore eraldatzaile eta hezitzaile gisa sustatuz.
- b) Ekonomikoa: Klubaren epe luzearako kudeaketa arduratsua eta iraunkorra bermatuko duten barne-mekanismoak indartzea, inguruko bizi-kalitatea hobetzen lagunduz, ATHLETIC CLUBek lurraldearen ekonomian duen eragin handia dela eta.
- c) Ingurumenekoa: Klubaren jarduerak ekosistema naturaletan sortzen duten aztarna gutxitzea, energia, ura eta erabilitako beste edozein baliabide ahalik eta ondoen kudeatuz.
- d) Emozionala. Herritarren gogo-aldarte emozionala hobetzen laguntzea, ATHLETIC CLUBek bere komunitatean duen eragin eta inspirazio-gaitasunaz jabetuta.





7. ARTIKULUA.- ERANTZUKIZUN SOZIALEKO PROGRAMA

Erantzukizun Sozialeko Programa arloko politikek eta helburu estrategikoen osatuko dute, eta Zuzendaritza-Batzordeak onartuko du.

Programa hori bere gizarte-arloaren ekintza-planen bidez garatuko da, ATHLETIC CLUB Fundazioarekin lankidetzan, eta ekintza koordinatua eta helburu sozial berarekin sustatuko da.

Horretarako, ATHLETIC CLUBek Gizarte Erantzukizuneko Batzordearen aholkularitza izango du.

8. ARTIKULUA.- ERANTZUKIZUN SOZIALEKO BATZORDEA

Batzorde iraunkorra da, informaziozkoa eta aholku-emailea, eginkizun betearazlerik gabea, bere jardun-eremuaren barruan informazio-, aholkularitza- eta proposamen-ahalmenak dituena, eta Estatutu Sozialetan eta beste garapen-erregelamendu batzuetan jasotako arauen arabera arautuko da.

Batzordeak pertsona kopuru bikoitia izango du, gutxienez lau eta gehienez zortzi. Kide horiek guztiak ATHLETIC CLUBeko Zuzendaritza-Batzordeak izendatuko ditu, eta horietatik gutxienez heren bat ATHLETIC CLUB Fundazioaren Patronatua osatzen duten eta Zuzendaritza-Batzordeko kide ez diren pertsonen artean izendatuko dira.

9. ARTIKULUA.- BATZORDEAREN EGINKIZUNAK

Batzordeak eginkizun nagusi hauek izango ditu:

- a) Erantzukizun Sozialeko Programan ezarritako erantzukizun sozialeko politikak aldian behin berrikustea eta Zuzendaritza-Batzordeari horiek aldatzea eta eguneratzea proposatzea.
- b) Interes-taldeen espektatibak aztertzea, erantzukizun sozialeko politiken formulazioan aintzat har daitezen saiatzea eta interes-taldeekiko harremanen politikaren aplikazioa gainbegiratzea eta ebaluatzea.
- c) Zuzendaritza-Batzordeak onartu aurretik, erantzukizun sozial korporatiboaren urteko memoria-proiektuari buruzko txostena egitea. Aurrerantzean, Iraunkortasun Memoria ere dei dakiok.
- d) Klubaren gizarte-erantzukizun korporatiboaren arloko jarduna ezagutu, bultzatu eta bideratzea, eta horren berri ematea Zuzendaritza-Batzordeari.





- e) Bere eskumen-eremuan, gai hauetan aholku ematea: enplegua, berrikuntza, aniztasuna, integrazioa, diskriminaziorik eza, berdintasuna, bateragarritasuna, irisgarritasuna eta mugikortasuna.
- f) Klubaren gizarte-ekintzarako estrategia koordinatua eta haren babes- eta mezenasgo-planak proposatzea.
- g) ATHLETIC CLUB Fundazioak agintzen zaizkion interes orokorreko eta erantzukizun sozial korporatiboko jardueren berri ematea Klubari.
- h) Klubaren planak ebaluatzea eta berrikustea erantzukizun sozialeko politikak gauzatzean, eta horien betetze-mailaren jarraipena egitea.
- i) Klubak gizarte-erantzukizun korporatiboaren arloan duen egoera ebaluatzea.
- j) Gizarte-erantzukizun korporatiboaren arloan merkatuan sortzen diren borondatezko ekimenak eta gomendioen dokumentuak aztertzea.
- k) Komunikazio eta marketin arduratsuko azken joerak barnean ezagutaraztea.
- l) Zuzendaritza-Batzordeari aholkularitza ematea berrikuntza arduratsuen azken joerei buruz.
- m) Gizarte-erantzukizun korporatiboko jardunbide onenei buruzko informazioa jasotzea eta ematea, neurketa-tresna sistematikoak erabiliz, Klubak gizarte-erantzukizun korporatiboaren arloan duen posizionamendua baloratzeko.
- n) Gizarte-erantzukizun korporatiboaren arloan estatuan eta nazioartean abian jartzen diren neurketa-tresnak eta behatokiak aztertzea, eta Klubaren posizionamendua hobetzeko gomendioak ematea.
- o) Gizarte-erantzukizun korporatiboaren arloan, eskatzen dizkioten txostenak egitea eta jarduketak garatzea.
- p) Klubaren eta ATHLETIC CLUB Fundazioaren arteko harreman-esparrua proposatzea Zuzendaritza-Batzordeari, edo dagoena eguneratzea proposatzea.

10. ARTIKULUA.- KLUBAREN HARREMAN-ESPARRUA FUNDAZIOAREKIN

ATHLETIC CLUBek harreman-esparrua izango du ATHLETIC CLUB Fundazioarekin, eta horren berri emango dio Konpromisarioen Batzarrari. Horri buruzko informazioa Klubaren gardentasun-atarian argitaratuko du.





III. TITULUA- GOBERNANTZA ONAREN KODEA

11. ARTIKULUA.- ESPARRU OROKORRA

Estatutu Sozialen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa betez, Erregelamendu honek ATHLETIC CLUBen Gobernantza Onaren Kodea eratzen du, eta araudia betetzeko programaren zehaztapenak biltzen ditu.

Hauek osatzen dute Gobernantza Onaren Kodea:

- Erregelamendu honetan garatzen den Kode Etikoa.
- Klubaren Batzar Nagusiak onartzen dituen edo onartutako Erregelamenduen Estatutu Sozialetatik datozen zehaztapenak, arlo bakoitzean ATHLETIC CLUB osatzen duten pertsona guztiek nahitaez bete behar dituzten jokabide-jarraibideak eta arau orokorrak jasotzen dituztenak.
- Gainerako barne-arauak eta -prozedurak, bai eta Klubaren jardueraren funtzionamendu egokirako aplikatzen diren barneko zein kanpoko kontrol-mekanismoak ere, Klubak garatzen dituen jardueren arabera eboluzionatzen joango direnak, une oro Kode Etikoan xedatutakoa errespetatuz eta harekin bat eginez.

Arauen, prozeduren eta kontrol-mekanismoen multzo horren helburua da araudia betetzeko kultura korporatiboa osatzea eta Klubeko organoek eta pertsonak kudeaketa-eredu erabilgarri eta eraginkor batekin duten konpromisoa indartzea, funtzionamendua eta jarduna hobetzeko.

12. ARTIKULUA.- KODE ETIKOA

Kode Etikoa ATHLETIC CLUBen Gobernantza Onaren Kodearen funtsezko araua da, eta Klubak bere gain hartzen dituen jokabide etikoaren eta gobernu onaren funtsezko printzipioak jasotzen ditu.

Klubaren ereduaren berezko printzipioak:

1. Pertsona guztiek onartu eta errespetatu behar dute bazkideengan datzan ATHLETIC CLUBen gobernantza-eredua. Kluba etengabe ahaleginduko da gobernu-eredu hori zaintzen eta indartzen, erakundearen jabetza bazkideen esku egon dadin denboran zehar. Helburu horrekin, printzipio horren edozein desbideratze saihesteko behar diren neurriak hartuko dira.





2. ATHLETIC CLUBek exijentziarik eta anbiziorik handieneko kultura sustatuko du arlo guztietan, eta, bereziki, kirol-arrakasta lortzera bideratua, Klubaren ohiko filosofia errespetatuz. Eta hori guztia, erakundearen iraunkortasuna bermatuz eta Erregelamendu honetako gainerako printzipioekin orekan.

3. ATHLETIC CLUB jokalekuan eta jokalekutik kanpo duen berezitasunagatik ezaguna da, eta balio jakin batzuk hartzen ditu kontuan; balio horiek, oro har, nortasun bakarra, benetakoa eta bazkideek eta sozietateek partekatzen dutena osatzen dute. Nortasun hori babestea merezi duen kultura-ondarea da, bazkideek partekatutako titulartasunean eta protagonismoan oinarritzen dena.

Printzipio hauek oinarri hartuta, Kode Etikoa osatzen duten gainerako printzipioak zerrendatzen dira, ATHLETIC CLUBen jokabide indibidual eta kolektiboak ikuspegi arduratsu eta etiko batetik gidatzen dituzten balioak eta jarduteko jarraibideak garatuz. Printzipio eta arau horietako asko jada garatuta daude Estatutuetan bertan eta Klubaren gobernantza onaren arauak osatzen dituzten gainerako Erregelamenduetan.

1. Zuzentasuna eta betetze etikoa.

Klubak bere gain hartzen du aplikagarri zaizkion lege, erregulazio eta araudi guztiak betetzeko betebeharra, bereziki futbolari eta, oro har, kirolari buruzkoak. Klubak beti izango ditu eguneratuta ustelkeriaren, partiden iruzurren eta beste edozein jokabide lizun edo antietikoren aurkako politika zorrotzak.

ATHLETIC CLUBek zero tolerantzia politika dauka ustelkeriarekiko. Lehiaren, gardentasunaren, funtsen erabilera eraginkorraren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak izango dira ATHLETIC CLUBen kontratazioan nagusi.

ATHLETIC CLUBeko langileek eta organoetako kideek ustelkeriaren aurkako politika hori zehatz-mehatz ezagutu eta aplikatu behar dute kontratazioaren esparruan, Kontratazio Erregelamenduan ezarritako arauak aplikatuz.

Era berean, interes-gatazkak saihestuko dituzte, eta, nolahi ere, informazioa eman beharko dute erabaki edo jarduketa batek talka egin badezake beren interesen eta ATHLETIC CLUBen interesen artean, Estatutuetan eta Erregelamendu Organiko eta Kontrataziokoetan ezarritakoaren arabera.

Debekatuta dago, halaber, artesariak edo horiek jasotzeko promesak onartzea, norberaren, bitartekariaren edo horiekin lotutako alderdien onurarako direnean, beren eginkizunak betetzean edozein negozio mota egiten dutenean.





Era berean, Klubari buruzko informazio pribilegiatu, konfidentzial, erreserbatu eta/edo sekretu gisa sailka daitekeen informazio oro isilpean gordetzeko betebeharra dute, eta, beraz, informazio hori ezin izango da zabaltzeko eta, are gutxiago, norberaren mesederako erabili edo haren bitartez interes ekonomiko indibiduala lortzen saiatu.

2. Partiden eta lehiaketen zuzentasuna eta kiroltasuna.

Zuzendaritza-Batzordeko kideek eta Klubeko langileek debekatuta dute Klubeko edozein taldek parte hartzen duen lehiaketetan parte hartzea, zuzenean edo zeharka, edo apustuekin, loteriekin, ausazko jokoekin eta antzeko jarduerekin edo futbol-partidekin lotutako negoziuekin elkartuta egotea.

Halaber, futbol-zelaietan errespetua, kiroltasuna eta bizikidetzak baketsua sustatzeko konpromisoa hartzen du Klubak.

3. Drogen eta dopinaren aurkako borroka.

Klubeko kide guztiek konpromisoa hartzen dute drogen eta kiroleko dopinaren aurkako borrokan, eta drogen kontsumoaren eta dopin-metodoen aurka daude aurrez aurre. Klubak konpromisoa hartzen du dopinaren prebentzioan eta haren aurkako borrokan eskumena duten erakundeekin lankidetzan aritzeko, leialtasunez eta gardentasunez, edozein esparrutan.

4. Lehia leiala.

ATHLETIC CLUBen oinarrizko jokabide-araua da lehiaren zuzenbidea zorrotz betetzea eta kolusiozko jardunbideak prebenitzea bi erakundeen esparruan.

ATHLETIC CLUBek konpromisoa hartzen du bere ohiko jardueren esparruan jarduteko, Lehiaren Defentsari eta Lehia Desleialari buruzko araudi nazionalen zein Europar Batasunekoan ezarritakoa betetzeko, eta, bereziki, konpromisoa hartzen du legegileak debekatutako jokabideetat hartzen dituen jarduerak guztiak saihesteko, araudi horretan jasota baitaude.

5. Arriskuen kudeaketa.

Klubak sistema eraginkorrak izango ditu arrisku finantzarioak, legalak eta operatiboak identifikatzeko, kudeatzeko eta arintzeko, eta araudia betetzeko programa bat izango du, Klubak bere jardunean izan ditzakeen arriskuak prebenitzeko eta haiei aurre egiteko.





6. Lidergo arduratsua.

Ardura-karguetan eta lehen kudeaketa-mailan dauden pertsonen gobernu onaren printzipioekiko gaitasunak, etika eta konpromisoa erakutsi behar dituzte, eta elkarrenganako errespetua, erantzukizuna, anbizioa eta emaitzetara bideratutako erakunde-kultura sustatu behar dute, bai kirolaren arloan, bai gainerako arlo guztietan.

Klubaren administrazioa eta zuzendaritza pertsona egokien esku utziko da, haien ezagutza, gaitasun, esperientzia eta lidergo-gaitasunagatik. Eguneroko kudeaketaren ekimena eta pisua Klubaren kudeaketa exekutiboko taldeari dagokio, zuzendaritza estrategikoarekin eta Zuzendaritza-Batzordearen laguntzarekin, eta horrek estrategien koherentzia bermatzen du epe luzera.

Klubak irizpide profesional hutsak aplikatuko ditu erabakiak hartzeko, eta Kluba osatzen duten pertsonen etika, gardentasuna, seriotasuna, dedikazioa, erantzukizuna eta leialtasuna eskatuko die, aginte-sistema deszentralizatu eta interkonektatu baten bidez.

7. Iraunkortasuna eta epe luzea.

Klubaren erabakiak eta ekintzak epe luzerako ikuspegiaren esparruan hartuko dira, Zuzendaritza-Batzorde bakoitzarentzat ezarritako agintalditik harago, eta finantza-, gizarte- eta ingurumen-iraunkortasuna izango dute ardatz.

Erabakiak hartzean, Klubaren jardueren komunitatean eta ingurumenean duten eragina baloratuko da, etengabe hobetzeko eta gizarteari modu positiboan laguntzeko, baita gobernantza-sistema hori unean uneko jardunbide onenekin eguneratuta mantentzeko ere.

8. Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak.

Nazioarteko itun nagusietan aitortutako giza eskubideak errespetatzea, gozatzea eta babestea sustatzen du Klubak. Horregatik, ATHLETIC CLUB osatzen duten pertsona guztiek, beren jardueretan, erabat errespetatu behar dituzte giza eskubideak, berdintasuna, inklusioa, aniztasuna, ekitatea eta Giza Eskubideei eta Oinarrizko Askatasunei lotutako beste edozein balio sustatuz.





9. Haurren babesa.

Klubeko kide guztiek Haurrak Babesteko Programaren aplikazioan laguntzen dute, eta horretarako ezarritako arau guztiak betetzen direla zaintzen dute, beren jardunean lehentasunezko helburua izanik.

10. Hizkuntza ofizialak. Euskararen normalizazioa

Athletic Cluben hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira, eta, beraz, biak erabiliko dira Athletic Cluben jardura guztietan. Era berean, Klubak langileen artean eta elkartekide, enpresa eta erakundeei dagokienez euskararen erabilera sustatzea eta garatzea bultzatuko du, elebitasuna bermatuz eta Klubaren barruan hizkuntza-normalizazioa sustatuz.

11. Gardentasuna eta kontuak ematea.

Klubak aurrerapen estrategikoari buruzko informazioa emango du aldian-aldean (informazio finantzarioa eta ez-finantzarioa barne), alde interesdun guztientzat argi eta eskuragarri, eta behar den konfidentzialtasuna gordeko du Klubaren interesak eta jardura babesteko behar diren alderdietan.

Klubak behar bezala eguneratuta edukiko du gardentasun-atal zehatz bat bere webgunean.

12. Parte-hartzea sustatzea.

Partaidetza-prozesuak eratuko dira, ordezkaritza-partaidetzaren tresna osagarri gisa eta gobernantza onerako tresna gisa, horretarako onartutako Estatutu eta Erregelamenduetan ezarritako baldintzetan.

13. Bikaintasuna lan-harremanetan.

- a) Errespetua eta tratu-berdintasuna. Klubak konpromisoa hartzen du bere langile guztiei lan-baldintza duinak eta bidezkoak emateko. Era berean, ez da onartuko inolako gehiegizko jokabiderik, etsaitasunezko jokabiderik edo jokabide iraingarririk, ezta diskriminatzaile ere, eta langile guztienganako politika inklusiboak egiten saiatuko da, edozein dela ere langile horien maila edo kualifikazioa. Era berean, Klubak ez du onartzen laneko jazarpenik, sexuala izan edo ez, eta kide guztiek zaindu behar dute jokabide horiek prebenitzen eta zuzentzen. Horretarako, Klubak eguneratuta izango du horrelako kasuei aurre egiteko duen protokolo espezifiko.





- b) Aukera-berdintasuna. Langile guztiek lanbide-garapenerako aukera berberak izango dituzte, eta lanpostuz igotzeko erabakiak prestakuntzan, merezimenduan, ahaleginean eta, behar izanez gero, lidergorako gaitasunetan soilik oinarritu ahal izango dira, betiere objektiboki baloratuta.
- c) Oreka pertsonala eta profesionala sustatzea. Kluba jabetzen da oso garrantzitsua dela bizitza pertsonal osoa izatea langileen eginkizunak behar bezala betetzeko. Era berean, Klubak badaki lana eta familia modu egokian uztartzeko zailtasunak daudela. Horregatik, bere helburuen artean dago bizitza pertsonalaren eta profesionalaren arteko kontziliazioa eta oreka sustatzea, ahal den neurrian langileen egoera eta inguruabar pertsonal eta familiarrak uztartuz.
- d) Laneko segurtasuna eta osasuna. Klubak zorrotz bete beharko ditu laneko Osasunari eta Higieneari buruzko arauak, arrisku psikosozialak barne, bai eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoak ere, eta beren eginkizunak betetzeko behar dituzten talde teknikoak eman beharko dizkie langileei, bai eta langileak babesteko behar diren prestakuntza-ikastaro guztiak eman ere.

14. Datu pertsonalak.

Klubak eta, beren kargua dela-eta, datu pertsonalak erabiliko dituzten pertsona guztiek datu horiek erabili ahal izateko, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan eta hura garatzen duen araudian aurreikusitakoa bete beharko dute, eta une oro bete beharko dituzte Klubaren barruan ezarritako barne-prozedurak. Era berean, datu pertsonalen tratamendua datu horiek zertarako bildu ziren, horrexetara egokitu beharko da.

13. ARTIKULUA.- ARAUDIA BETETZEKO PROGRAMA

Arauak betetzeko programaren xedea da kudeaketa- eta kontrol-sistema ezartzea, bere jarduerari aplikatu beharreko arauak betetzeko eta Klubak bere jardunean izan ditzakeen arriskuak prebenitzeko eta horien aurrean erreakzionatzeko, bai eta erakundean Gobernantza Onaren Kodea zabaltzeko ere.

Araudia betetzeko programak honako alderdi hauek ditu:

- Klubeko eta sail eta arlo bakoitzeko pertsona guztiak arduratzen dira beren jarduna arautzen duten arauak aplikatzeaz eta Gobernantza Onaren Kodea eta, bereziki, haren Kode Etikoa betetzeaz.
- Arrisku-mapa bat definitzea, Klubak arrisku penalekiko edo lehia-arriskuekiko duen arrisku handiena edo kalteberena duten ekintzak edo jarduerak detektatzeko.





- Klubaren sailtan ezarri behar diren arriskuak prebenitzeko neurriak zehaztea.
- Haurrak Babesteko Programa garatzea ATHLETIC CLUBeko Haurrak Babesteko Arduradunaren bitartez. Programa hori funtsezkoa da Kluba osatzen duten adingabeak behar bezala babesteko eta horri buruzko lege-araudia betetzeko.
- Arriskuen mapan zerrendatutako prebentzio-neurriak betetzeari buruzko auditoriak egitea.
- Barneko informazio-sistema kudeatzea, informatzailearen kanala barne.
- Programa aldi berean behin eguneratzea.
- Erakundearen araudia betetzeko programa eta Gobernantza Onaren Kodea zabaltzea, jardunbide egokietara bideratutako kultura garatzeko.

14. ARTIKULUA.- BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMA

Klubak barneko informazio-sistema bat izan behar du, legez eskatutako baldintzetan, Arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko otsailaren 20ko 2/2023 Legearekin edo hura ordeztzen duen araudiarekin bat etorritik, betiere kanal horren anonimotasuna bermatuz.

Barneko Informazio Sistema da ATHLETIC CLUBen egindako ekintzen edo ez-egiteen berri emateko eskaintako barne-bidea, baldin eta arau-hauste penalak, administratiboak edo indarrean dagoen araudiaren edo Gobernantza Onaren Kodearen aurkako beste edozein portaera badira (arau-hauste burutuak, saiakerak edo arau-hauste horiek ezkutatzeko edozein saiakera barne).

Era berean, ATHLETIC CLUBi zuzendutako komunikazio guztietan aplikatuko da, baldin eta kirolaren esparruan haurrak babesteko Programaren salaketa-kanalaren eremuan egiten badira.

Horretarako, Klubak beti eguneratuko du bere webgunean barneko informazio-sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa eta legez baimendutako komunikazioak egiteko bitartekoak.

15. ARTIKULUA.- KONTROL-ORGANOAK

Gobernantza Onaren arloko barne-kontrolleko organoak honako hauek dira:

- Araudia betetzeko organoa (Compliance Officer) eta barneko informazio-sistemaren arduraduna.





Bere gain hartuko du arrisku penaletan araudia betetzeko programaren funtzionamendua eta betetze-maila gainbegiratzea, bai eta erakundean Gobernantza Onaren Kodea zabaltzea eta barneko informazio-sistema kudeatzea ere. Horretarako, haren lana jardunbide egokiak sustatzera eta araudia betetzera bideratuta dagoela ulertuko da, eta pertsona bakoitzaren erantzukizuna izango da bere eginkizunak direla-eta aplikatu beharreko araudia betetzea.

Klubaren Lege Zuzendaritzak beteko du kargua, salbu eta Zuzendaritza-Batzordeak pertsona bat izendatzen badu kargu hori modu eskusiboan betetzeko.

- Kontrol ekonomiko, gardentasun eta gobernu onaren batzordea.

Kide anitzeko organo gisa duten izaera, osaera eta eginkizunak Estatutu Sozialetan eta Erregelamendu Organikoan ezarritakoaren arabera garatuko dira. Helburua da Klubak egindako eragiketa eta jarduera ekonomiko, finantzario, fiskal eta administratiboak aztertzea, ikuskatzea eta ebaluatzea, bazkideei kudeaketan garrantzitsuak diren alderdien berri emateko eta gobernu onarekin bat datorren kudeaketa gardena lortzen laguntzeko.





XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Erregelamendu honetan ezarritakoaren aurka doazen Klubaren barruko arau-xedapen guztiak indargabetuta geratzen dira.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau Klubeko Konpromisarioen Batzar Nagusiak onartu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

